

Guk gure kasuan ekintza berritzaile bat prestatu dugu, birmoldatutako arropa eskaintzen. Hau da, arropa zakarretara joan ordez jaso eta beste erabilpen bat emango diogu.

Gaur egungo gizartean komertzial handietan edo bigarren eskuko komertzioetan erosteko joera dago. Gehiegizko kontsumoa ekiditen saiatzeko arropari beste erabilpen bat ematen saiatuko gara produktu horietatik berri batzuk sortzen.



Badakigu sektorean kompetentziatzat hartzen ditugun enpresa handiak daudela, baina ez dago gure berdina egiten duen enpresarik.

Ekintza hau aurrera eramatearen abantailak hauek izango lirateke: hasteko, ingurumenarekiko ardura dugu eta kontuan hartzen dugu, izan ere lehendik eginiko arropa berrerabiltzeko prestatuko dugu eta horrek gehiegizko kontsumoa ekiditen du.



Kontsumoaren kontzientzia esan dugunarekin bat dator. Besteengandik desberdintzen gaituen gauzetako bat ez da bakarrik birmoldaketa baizik eta egiten ditugun arropa guztiak eksklusiboak direla, ez da guk egindako produktu berdinek merkatuan egongo. Gainera, gure produktua beste dendekin alderatuz merkeagoa da eta horrek modara joatea

gustatzen zaien pertsoneri lagunduko lieke.

Gure proiektua arroparen menpe dago eta arropa ez badugu ezingo genuke saldu beraz konponketak egitea dirua irabazteko modu egokia dela uste dugu. Hau da, arropa birmoldatzeaz gain praktetako baxua hartu, botoiak josi, konponketa txikiak... egingo geniotuzke.

Momentu batzuetan birmoldaketa eta konponketa guztiak egiteko laguntza beharko genuke eta pertsona bat kontratatzea gastu gehiegi izango lirateke. Beraz moda ikasketak eskaintzen duten gradu edo ikasketekin akordio batera iritsiko gineteke beraien ikasleak praktikak gure enpresan burutzeko.

